## 2389

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, 2007-2008 ikasturteko master ofizialak egiteko beketarako deialdirako guztizko zenbatekoa igotzeko baimena ematen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduak, 2007-2008 ikasturtean master ofizialak egiteko beketarako dei egiten duenak (EHAA, 2007ko abenduaren 12koa), bere xedapen gehigarrian xedatu duena oinarritzat hartuta, eta agortu gabeko aurrekontu baliabiderik badagoenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

2007-2008 ikasturteko master ofizialak egiteko beketarako guztizko zenbatekoa igotzeko baimena ematea, noraino eta 272.010 euroraino.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 1a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
PABLO JESÚS LARRAURI ALTONAGA.

## 2389

RESOLUCIÓN de 1 de abril de 2008, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve autorizar el incremento del importe total de la convocatoria de becas para la realización de masteres oficiales en el curso 2007-2008.

En base a lo dispuesto en la Disposición Adicional de la Orden de 21 de noviembre de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan becas para la realización de masteres oficiales en el curso 2007-2008 (BOPV de 12 de diciembre de 2007), y dado que existe disponibilidad presupuestaria no agotada, resultante de la ejecución de otros programas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación,

RESUELVO:

Autorizar el incremento del importe total de la convocatoria de becas para la realización de masteres oficiales en el curso 2007-2008, hasta la cantidad de 272.010 euros.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2008.

El Viceconsejero de Administración y Servicios,
PABLO JESÚS LARRAURI ALTONAGA.

# OSASUN SAILA

## 2390

176/2008 EBAZPENA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, lanpostuan jarduteko gaitasuna baloratzeko batzordea sortzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu ziren. Ebazpen horren 6. oinarriaren d) idatz-zatiaren arabera, deitutako destinoez lehiaketa-oposizio sistemaren bidez jabetzeko betekizunetako bat da destinoan normaltasunez jarduteko gaitasun psikofisikoa izatea; gaitasun hori behin hautatzeprozesua gainditu denean egiaztatu beharko da, horretarako izendatzen den zentroan egingo den mediku-azterketaren bitartez. Destinoaz jabetu ahal izateko, ezinbestekoa izango da betekizun hori betetzea.

# DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## 2390

RESOLUCIÓN 176/2008, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se crea la comisión de valoración de aptitud para el desempeño del puesto de trabajo.

La Resolución 1082/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, prevé en su base 6, apartado d) que entre las condiciones para optar a los destinos convocados por el procedimiento de concurso-oposición se debe poseer la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño del destino, la cual se acreditará, una vez superado el proceso selectivo, mediante reconocimiento médico en el centro que al efecto se determine, quedando supeditada la toma de posesión al cumplimiento de este requisito.